Irakasle agurgarria:

Guztiok gogoratuko duzuenez, unibertsitatean aurrez aurreko jarduera eten ondoren, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak bigarren lauhileko honetan Irakasleen Irakaskuntzari buruzko Iritziari buruzko Inkesta bertan behera uztea erabaki zuen, ez baikenuen ohiko prozedurarekin gauzatzeko gutxieneko baldintzarik.

Hala ere, pentsatzen dugu alternatibak bilatu behar direla salbuespenezko aldi honetan emandako irakaskuntzari buruzko iritzia eman dezaten ikasleek. Irakasleak kalitatezko irakaskuntzari eusteko egiten ari diren ahalegina kontuan hartuta, eta Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuan eskariak hartu ditugunez egungo egoeretara egokitutako prozedura eta galdetegi bat osatzeko, bada, galdetegi bat prestatuta, GAUR aplikazioan ezarriko duguna, eta ez du irakasleen esku-hartzearen beharrik.

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak galdetegi hau diseinatu du, eta Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) osatu eta baliozkotu du (batzorde horretan, irakasleak eta ikasleak daude ordezkatuta). Era berean, Errektorego Taldeak aztertu du eta Krisi Kabineteari jakinarazi dio.

Erantzunak jasotzeko prozedura ONLINE izango da: ikasleek mezu elektroniko bat jasoko dute galdetegiari zuzenean erantzuteko, GAUR aplikazioaren bidez. GAUR erabiltzeko erabakiaren oinarria da egungo egoerara egokitutako galdetegi berri bat bidaltzeko bide bakarra dela, eta, aldi berean, UPV/EHUn dauden irakaskuntza egoera (irakaslea-irakasgaia-taldea) guztietarako (8.000 inguru) iritzia modu anonimo, fidagarri eta eraginkorrean lortzeko aukera ematen duela.

Prozedurari buruzko oharrak:

- Talde bakoitzean matrikulatutako ikasle guztiei iritsiko zaie postaz, ikasgaian aktiboki parte hartu zein ez. Horregatik, zuen parte-hartzea eskatzen dizuegu, zuen saioetan parte hartzen duten ikasleei galdetegia bete dezaten animatuz. Garrantzitsua da irakaskuntza egoera bakoitzean aktiboki parte hartzen duten ikasleen ahalik eta parte-hartze handiena izatea.
- GAUR-n ez da praktiketako azpitaldeen matrikula agertzen; beraz, ezinezkoa da jakitea zer ikasleri bidali beharko geniekeen posta, irakasleek praktiketako azpitaldeak bakarrik ematen dituzten kasuetan. Irakaskuntza egoera horiek, azkenean, ez dute iritzi txostenik izango.
- GAUR aplikazioak ez du ematen ofizialak ez diren hizkuntzetan datuak biltzeko baimenik, eta, beraz, euskaraz eta gaztelaniaz bakarrik erantzun ahal izango da. Galdetegiaren ingelesezko bertsioa eskuragarri dago, pdf formatuan, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren webgunean, beraz ikasle talde bati helarazi nahi bazaio, hortik har daiteke.
- Practicumeko irakasgaietan inkestarik egingo ez den arren, mezua automatikoki bidaliko zaie irakasle tutoreei eta irakasgai horietako begiraleei. Eman zaio arazo horren berri Informatika Zerbitzuari, baina konpondu arte horrela jarraituko du. Barkamena eskatzen dugu horrek eragindako arazoengatik.
- Baliteke ikasle batzuek inkesta egin aurretik jasota izatea irakaskuntza edo ebaluazio-emaitzaren bat, baina ezin izan da aurreratu bermeekin bilketa ofizialaren prozesua.

Azkenik, adierazi behar da irakasleak merezimendu gisa aurkeztu ahal izango duela txostena, Docentiaz-en deialdian, bosturtekoetan edo beste deialdi batzuetan. Ekarpen hori irakasleak berak egingo du, aipatutako deialdietarako txosten horien deskarga ezin izan delako automatizatu.

Galdetegiak Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren web orrian kontsulta ditzakezu.

Adeitasunez,